

Errazagoa da dantza egitea

San Fermin eguna da, eta ez gaude ez Iruñean ez Lesakan, baina dantzan ari gara. Miranda do Douro gaude, Portugalen, makila-dantzen nazioarteko jaialdi batean. Miranda inguruko *pauliteiroak* eta Zamorako *paloteoak* dira nagusi jaialdian, eta gu urrutitik iritsitako euskaldun exotikoen papera egitera etorri gara. Gure emanaldia bukatu eta zenbait ikusle hurbildu zaizkigu egin ditugun dantzei buruz galdezka: “Zer esan nahi du egin duzuen ezpata-dantzak? Guda-dantza bereziren bat al da?” galdetu dit batak. “Emankortasunarekin zerikusirik al du?”, besteak.

Portugalera joan gabe ere, ezkontza batean dantza eginez gero ohikoa da gonbidatuetako bat hurbiltzea eta “aizu, azalduko al diozu gure Albaceteko lehengusuari zer esan nahi duen aurrekuak?”. Gure dantzek esanahi magiko eta mistikoen gordailu direla sinestarazten lan handia egin dugu dantza taldeetatik. Are gehiago, tradizionalari exotikoa gehitzen badiogu musika zelta egiten dutela dioten zenbait talderen iruditeria osoa martxan daukagu: errito paganoak, sinbolo ezkutuak eta arte primitiboaren superbibentziak.

Ez dut ukatuko superbibentziarik dagoenik gure dantzetan. Saioak gogorak dira, izerdia majo isurtzen dugu, makilakadetek minberak uzten dituzte hatzak, eta koreografiaren joan-etorriak sasi artean galtzen direnean, oxigenoa urritzen hasten da burmuinetan eta esku eta oinen koordinazioak kale egiten du. Heroiek bakarrik segitzen dute aurrera, superbibentteek.

Zahar itxura badute ere, XXI. mendeko gizartearen eta kulturaren emaitza dira gure dantzak. Bai, tradizio zaharren ondorengoak dira; ustez behintzat, zenbait kasutan, aspalditik datozen tradizioak dira. Egia esan, egozten dieguna baino dezente berriagoak dira gehienak, baina hori beste baterako utziko dugu. Esan bezala, aspaldiko tradizio batzuen ondorengo ditugu zenbait



DANI BLANCO

dantza, etengabe egokitzen eta eraldatzen joan arren, zahar itxurako osagai batzuekin funtzionatzen jarraitzen dutenak. Baina egungo gizartean ekoiztu eta kontsumitzen dira, beraz, egungo kulturak eragiten die, beste edozeini bezala. Eta esanahiak ere egungo jardueran eman nahi dizkiogunak ditu. Zer esan nahi duen ezkonberriei egingdako aurrekuak? Ba norbaitek ordaindu duela hori egiteko. Ados, horren gordin esate

ez da batere erromantikoa. Izan daiteke dantzariak lagun dituela eta horrela zoriondu nahi izan dituela ezkonberriak. Besterik ez? Bai, noski, bakoitzak erantsi nahi dion guztia. Eta erantsi nahi ez diona ere bai.

Idea eta kontzeptu abstraktuak eraiki eta komunikatzeko erabiltzen dugun funtsezko tresna azaleratu ziguten Lakoff-ek eta Johnson-ek: metafora. Hizkuntza bidezko komunikazioa metaforaz josita eta metaforen gainean eraikita badago, dantza komunikazioa sinbolikoa da goitik behera, eta metaforan

hezurmamitzen da bere adierazteko gaitasuna.

Beste garai batzuetan sortu eta eraldatu zituzten arrazoak eta esanahiak fosilduta aurki litezke tradiziozko dantzetan. Koreo-arkeologia jarduera erakargarria da eta emaitza irudimentsuak eskaintzen ditu, gure historiara hurbiltzeko aukera

eman eta aurrera egiteko bideak irekitzen dizkigu. Asko gara horrelakoekin gozatzeko dugunak. Ruperrek kantatzen duen bezala: “Nik ere, gauza orotarik, gauza erabiliak ditut gehien maite”. Baina orain eta hemen dantzatzen denak, orain eta hemen du zentzia eta esanahia, eta horixe da biziarratzen duena. Ez da erronka makala hori hitzetan jartzea, alegia, 2007an ezpata-dantzan ari garenean, zer adierazi nahi dugun eta, ikusleak zer ulertzen duen hautematea eta hitzen lengoaiara ekartzea. Errazagoa da dantzan aritzea. ■

«
Orain eta hemen dantzatzen denak du zentzia eta esanahia, eta horixe da biziarratzen duena.
Ez da erronka makala hori hitzetan jartzea, alegia, 2007an ezpata-dantzan ari garenean, zer adierazi nahi dugun eta, ikusleak zer ulertzen duen hautematea eta hitzen lengoaiara ekartzea. Errazagoa da dantzan aritzea
»

